



**TOLOSAKO  
UDALA**

Urtea : 2022-23

3.1.6

ERANSKINA - ANEXO

**3.1.6 MUSIKA ESKOLA**

	MUSIKA ESKOLA ZERBITZUA	SERVICIO ACADEMIA DE MUSICA	OROKORRA / GENERAL 2022-2023	TARIFA TOLOSA 2022-2023
A)	Musika eskola	Escuela de Música:		
	1.maila	1º nivel	292,49	195,68
	2.maila	2º nivel	875,39	580,53
	2.maila solfeorik gabe	2º nivel sin solfeo	579,77	387,21
	3.maila	3º nivel	1.049,21	701,56
	3.maila, osagarririk gabe	3º nivel, sin complementaria	729,67	486,10
	4.maila	4º nivel:		
	a) Musika taldea	a) Conjunto musical	145,72	97,85
	b) instrumentua + musika taldea	b) instrumento + conjunto musical	579,77	387,21
	Ikasle errefortzatuak	Alumnos reforzados	1.341,70	896,21
	Ikasgai teorikoak	Asignaturas teóricas	292,49	195,68
	Bigarren instrumentua	Segundo instrumento	292,49	195,68

**APLIKAZIO ARAUAK**

1.TOLOSA tarifak matrikulazio epearen amaiera baino bi hilabete lehenagotik Tolosan errolatuta dauden herritarrei aplikatuko zaizkie (irailaren 30a).

Tolosaldean errolatutakoiei ere aplikatuko zaizkie, betiere jatorrizko udalek tolosarrei ere beren herritarrei aplikatzen dizkieten tarifak aplikatzen badizkiete musika eskolari dagokioneranskin honetako zerbitzu guztietan.

2. Prezio publiko honen sortzapena matrikula egiterakoan, edoberritze automatikoarekin, sortuko da.

Aurreko ikasturtea amaitu aurretik, hurrengo ikasturterako matrikulazio epealdia zabalduko da. Behin matrikulatuz gero, ikaslea hurrengo ikasturteetarako matrikulatuta dagoela ulertuko da, ikasleak UDATEn, dagokion formularioa bete eta kontraktorik jakinarazi ezean. Ez jarraitzeko jakinarazpena aurreko ikasturtearen amaieraren aurretik egin behar da, hau da, ekainaren 23aren aurretik. Hala egiten ez badu, udalak dagokion matrikularen ordainarazpena jaulkiko dio ikasleari.

Matrikulatzeko, beharrezkoa izango da aurreko ikasturteetako kuota guztiak ordainduta edukitzea.

**NORMAS DE APLICACION**

1. Las tarifas TOLOSA se aplicarán a las personas empadronadas en Tolosa con dos meses de antelación respecto a la fecha fin del período de matriculación (30 de septiembre).

También se aplicarán a las personas empadronadas en Tolosaldea, siempre que los correspondientes municipios también apliquen a las personas empadronadas en Tolosa las mismas tarifas que aplican a su ciudadanía en todos los servicios de este anexo correspondiente a la escuela de música.

2. Este precio público se devenga al realizar la matrícula o en el momento de su renovación automática.

El plazo de matrícula para el siguiente curso se abrirá antes de la finalización del curso. Una vez hecha la matrícula, se entenderá que el alumno está matriculado para los cursos siguientes, salvo que el alumno indique lo contrario rellenando el correspondiente cuestionario en UDATE. La notificación de no continuidad se debe hacer antes de la finalización del curso, o sea, antes del 23 de junio. En caso contrario, el Ayuntamiento emitirá la correspondiente exacción de matrícula al alumno.

Para matricularse, será necesario tener abonadas todas las cuotas de cursos anteriores.



TOLOSAKO  
UDALA

### 3. ORDAINKETA.

Matrikularen zenbateko osoa hiru alditan ordainduko da:

a) Aurreko urteetako ikasleak, %60 matrikula egiteko unean, edo berritze automatikoarekin batera, uztailean. (1. kuota)

Ikasle berriak eta bakanteen zain dauden ikasleak, aldiz, irailean.

b) %20 azaroaren 15etik 30era (2. kuota)

c) %20 otsailaren 15etik 28ra (3. kuota)

Matrikula deuseztatzeko eskaera egin daiteke ondorengo arrazoiengatik, baina edozein dela ere arrazoia, prezio publikoaren %20 ez da itzuliko.

Ikasleak ordainketak bertan behera uzteko edo matrikularen itzulpena eskatzeko arrazoiak:

- Gaixotasuna, betiere medikuaren egiaztagiriarekin, musika ikasketak jarraitzeko ezintasun larria duela adieraziz.
- Haurdunaldia, medikuak baloratutako arriskutasuna ikusita.
- Amatasun edo aitatasun baja.
- Ikasketa arautu edota homologatuen derrigorrezko lekualdaketak eta aldaketak, beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada
- Ez-ohiko egoera lan eremuan (lekualdaketak, kaleratzeak...) zein pertsonalean, beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada.

Ikasleak ordainketak bertan behera uzteko edo matrikularen itzulpena eskatzeko epeak:

- 1. kuotaren itzulpena ikasturtea hasi aurretikeskatu beharko da.
- 2. eta 3. kuota ez ordaintzeko eskaera, bakoitzaren ordainketaren aurreko hilabetean egin behar da, hau da: urriaren 15a eta urtarrilaren 15a

Salbuespen gisa, kontuan izango dira epez kanpoko baja eskaerak, baldin eta eskatzaileak klasebat bera ere ez duela jaso ziurtatzen bada.

Matrikularen lehen ordainketa osoa soilik itzuliko da matrikula deuseztatzeko arrazoia Udal Musika Eskolari egotz

### 3. PAGO.

El pago del importe completo de la matrícula se realizará en tres plazos:

a) Alumnos de cursos anteriores, el 60 %, al matricularse o al momento de la renovación automática, en julio (1ª cuota).

Nuevos alumnos/as o los/las que están esperando vacantes, en cambio, en septiembre.

b) El 20 %, entre el 15 o el 30 de noviembre (2ª cuota)

c) El %20, entre el 15 y el 28 de febrero (3ª cuota)

Se puede solicitar la anulación de la matrícula por los motivos siguientes, pero, sea cual sea el motivo, no se devolverá el 20 % del precio público.

Motivos para que el alumno suspenda el pago de la matrícula o solicite su devolución:

- Enfermedad, con certificado médico que indique incapacidad grave para acudir a la escuela.
- Embarazo, con el informe médico sobre valoración del riesgo.
- Baja por maternidad o paternidad
- Traslados o modificaciones obligadas de los estudios reglados u homologados, siempre que se certifiquen por medio de documentos.
- Situaciones extraordinarias en el ámbito laboral (traslados, despidos...) o personal, siempre que se certifiquen por medio de documentos.

Plazos para la suspensión de pagos o la solicitud de la devolución del importe de la matrícula:

La devolución de la primera cuota deberá solicitarse antes del comienzo del curso.

La solicitud de no abonar las cuotas 2ª y 3ª, el mes anterior al plazo de pago de cada una de ellas, o sea, el 15 de octubre y el 15 de enero.

Excepcionalmente, las solicitudes de baja hechas fuera de plazo se tendrán en cuenta si se certifica que la persona solicitante no ha asistido ni a una sola clase.

El primer pago de la matrícula solo se devolverá cuando la causa de anulación de la matrícula sea atribuible a la Escuela de Música.



## TOLOSAKO UDALA

dakiokeenean.

Arrazoi horiek direla-eta egiten diren eskaerak Udal Musika Eskolako Zuzendaritzak aztertu eta bidezko txostena emango du kuoten itzulpena edo bertan behera uztea baimendu edo ezproposatuz, eta Alkateak ebatziko ditu.

### 4. PREZIO JEITSIERA

4.1 Familia ugariei eta familia gurasobakarrei %50eko murriztuko zaie prezio publikoa.

Familia gurasobakarren kasuan, subjektu pasiboak urtero eskatu beharko du prezio jeitsiera.

Familia ugariaren murrizketaz gozatzeko, subjektu pasiboak eskatu egin behar du, eta, aldi berean, honako baldintza hauek bete beharditu:

- Tolosaldean errolatuta egotea
- Matrikulatzen den ikasturtearen aurreko maiatzaren 31ean familia ugariaren izaera edukitzea.
- Tramiteak errazteko, eskaera ez da urtero egin behar izango.

Hala eta guztiz ere, subjektu pasiboa behartuta dago prezioaren murrizketa horren baldintza eta betekizunen inguruan gerta daitezkeen aldaketan berri ematera, eta aldaketa horiek nolani ere, gertatu diren ekitaldian ez, hurrengoan izango dute eragina.

Administrazioak beretzat gordetzen du prezio jeitsiera onartu eta emateko behar diren baldintzak betetzen diren ala ez ofizioz egiaztatzeko eskubidea, eta subjektu pasiboak prezio jeitsiera eskuratzeko eskubidea duela egiaztatzeko behar diren agiri guztiak aurkez daitezzen eskatzekoa ere bai.

4.2 Eskaera egiten dutenei, baldin eta Tolosa errolatuta badaude, Tolosako udalarekin zorrik ez badute eta Gizarteratzeko eta Diru- sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak eskaintzen dituen prestazio baterako baldintza ekonomikoak betetzen baditu, %80 murriztuko zaie prezio publikoa.

4.3. Eskaera egiten dutenei, bizikidetzaren ondorengo baldintzak betetzen baditu:

- ondarea ez izatea 42.900 euro baino handiagoa. Arau hau aplikatzerako garaian, ez dira aintzat hartuko honako ondasun higiezin hauek: ohiko bizilekua, garajeak (gehienez ere bi garaje) eta familia unitateko kideren batek bere konturako jarduera bat gauzatzeko erabiltzen duen lokala.

Behin baldintzak beteta, prezio publikoaren jeitsiera bizikidetzaren unitateko kideen dirusarreraren arabera kalkulatu da:

Las solicitudes realizadas por dichos motivos serán examinadas por la Dirección de la Escuela de Música Municipal, que emitirá el correspondiente informe proponiendo admitir o denegar la solicitada devolución de cuotas o suspensión del pago, y será la Alcaldía quien las resuelva.

### 4. REDUCCIÓN DEL PRECIO PÚBLICO

4.1. Tendrán una reducción del 50 % del precio público las familias numerosas y las familias monoparentales.

Las familias monoparentales tendrán que solicitar anualmente la reducción del precio público.

El disfrute de la reducción del precio público de las familias numerosas requerirá la previa solicitud del sujeto pasivo, y el cumplimiento de las siguientes condiciones:

- Estar empadronado en Tolosaldea
- Ostentar la condición de familia numerosa a 31 de mayo del año de inicio del curso al que se matricula.
- Para la simplificación de los trámites no será necesaria la renovación anual de las solicitudes.

No obstante, el sujeto pasivo está obligado a comunicar las variaciones que se produzcan en ellas condiciones y requisitos de esta reducción y que, en todo caso, surtirán efectos a partir del ejercicio siguiente en que se hayan producido.

La Administración se reserva el derecho de comprobar de oficio el cumplimiento de los requisitos necesarios para el otorgamiento y concesión de la reducción y de requerir la presentación de cuantos documentos sean necesarios para acreditar el derecho del sujeto pasivo a la reducción.

4.2. Tendrán una reducción del 80 % las personas que soliciten siempre y cuando estén empadronadas en Tolosa, no tengan ninguna deuda con el Ayuntamiento de Tolosa y reúnan los requisitos económicos para las prestaciones ofrecidas por el Sistema Vasco de Garantía de Ingresos.

4.3. Tendrán una reducción, aquellas personas que soliciten y que la unidad convivencial cumpla los siguientes requisitos:

- Patrimonio no superior a 42.900 euros. En la aplicación de esta norma no se tendrán en cuenta los bienes inmuebles de residencia habitual, garajes (hasta un máximo de dos garajes) y el local en el que alguno o alguna de los/las miembros de la unidad familiar ejerza una actividad por cuenta propia.

Una vez cumplidos los requisitos, la rebaja del precio público se calculará en función del ingreso de los y las miembros de la unidad convivencial:



TOLOSAKO  
UDALA

Número de miembros de la unidad convivencial	0-13.300 €	13.301-15.960 €	15.961-18.620 €	15.621 €-21.280 €
1-2	% 80	% 60	% 50	% 0
3	% 90	% 70	% 60	% 25
4 o más	% 95	% 90	% 90	% 60

Atal honetako prezio publikoen jeitsiera lortzeko, bizikidetzaren unitateko kideen informazio fiskala aurkeztu beharko dute.

4.1., 4.2 eta 4.3 ataletako jeitsierak lortzeko baldintzak betetzen badituzte, portzentai handiena duen jeitsiera aplikatuko zaie, hau da, eskatzaileari onura gehien sortzen dion jeitsiera.

Eranskin honetako tarifak Osoko Bilkurak onetsi zituen 2022eko maiatzaren 26an, 2022-2023 ikasturtean sartu ziren indarrean eta halaxe jarraituko dute aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Eranskin honetako aplikazio arauak Osoko Bilkuraren behin betiko onespena jaso zuten 2022ko maiatzaren 26an, 2022-2023 ikasturteaz geroztik indarrean daude eta halaxe jarraituko dute aldatzea edo baliogabetzea erabaki arte.

Para obtener la reducción de los precios públicos deberán presentar la información fiscal de los y las miembros de la unidad convivencial.

Si cumplen los requisitos para acceder a las reducciones de los apartados 4.1, 4.2 y 4.3, se les aplicará la rebaja con mayor porcentaje, es decir, la que mayor beneficio genera al/a solicitante.

Las tarifas de este Anexo fueron aprobados por el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 26 de mayo de 2022 y entraron en vigor en el curso 2022-2023 continuando aplicándose en tanto no acuerde su modificación o derogación.

**Las normas de aplicación de este anexo, fueron aprobadas definitivamente por el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 26 de mayo de 2022, entraron en vigor en el curso 2022-2023 y continuarán en vigor, en tanto no se acuerde su modificación o derogación.**

Tolosan, 2022ko ekainaren 2an

ALKATEA

KONTU-HARTZAILEA

IDAZKARIA